

TRENBIDEAREN BOOMA EUROAPAN

Bukatu berri den urtearen azken partean trenbidearen inguruko eztabaida izan dugu Euskal Herrian, Urola trenbidearen ixtea dela eta. Manifestazio, eritzi-emate eta posizionamendu guztien ondoren gauza bat bakarrik gelditu da garbi: urolatarrek beren trenari dioten atxekimendua. Trenaren etorkizuna ordea, lehen bezain ilun dago gure aburuz. Gure Herrian errepideak trenbideari irabazi egin dio nonbait.

M.J.Barandiaran eta Inaki Irazabalbeitia

Maiz gure trenai buruz ari garenean eta hauen akatsak, atzerape-nak eta desegokitasunak aipatzen ditugunean, gure Herria Europa ez denaren beste froga bat dela esaten dugu. Eta horrela dirudi trenbidearen kasuan bederen. Europan trenbidea bultzatzen ari direnean eta etorkizunerako plan zabal eta era-



Britainia Haundiko Inter City tren.

gingarriak planteatzen ari diren une berean, gure artean *errentagarritasun* delako hitz magikoa aho-
ezpainen dutelarik trenak ixteari ekiten diote gure agintariek. Horrek ez dirudi bide egokia... irakur bestela.

Europako herri gehienetan, trenbide-sare berriedo berriztatu bat

martxan jartzen ari dira (ikus mapa). Gainera, trenbide-sare hori tunel eta errepide berriekin hertsiki loturik dago. Horregatik eta etorkizunean eraikiko diren tunel eta zubiei esker, Dunedin-etik Ankararaino trenetik jaitsi gabe joan ahal izango da. Eskoziako Dunedinen trenera igoko den bidaiaria Britainia Haundiko Inter City abiadura azkarreko trena hartutik Dover-eraino joango da. Bertan, trena utzi gabe, Mantxako Kanalaren azpitik doan tunelaren ahoan barrena abiatuko da. Frantziara iritsi ondoren, Europa kontinentaleko trenbide-sarea erabiliz Istambuleraino iritsiko da eta Europa eta Asia, Bosforoa gurutzatuz, lotuz egongo den tunelaren bidez Ankararaino ailegatuko da. Bidaia osoa azkarra, eroso eta segurua izango da gainera.

Azter ditzagun banan-banan hori lortzeko eman nahi diren urratsak.

Britainia Haundian badago jadanik abiadura azkarreko trenbidezko lotura Dunedin eta hegoaldeko kostaldearen artean. Mantxako Kanalaren azpian doan tunela, trenbide-tunela izango dena, eraikitzen hasi dira jadanik eta 1993.erako bukatua egon liteke. Britainia Haundian asmoa trenen abiadura

bizkortzea da; 200 km/htik 225 km/hra.

Frantziako *Train à Grande Vitesse* (TGV) txit ezaguna da. Tren honen lehenengo linea 1983.ean zabaldu zen Paris eta Lyon artean. Inbertsioak handiak, itzelak zehatzago esan, izan ziren, baina TGVk izan duen arrakastak (16 milioi



